

Nola tratatzen ditu Kieskompas-ek nire datu pertsonalak?

Pribatutasun-adierazpena (EUS)

- **Nortzuk zarete?**

Kieskompas ikerketa enpresa pribatu bat da, 2006an sortua. Ikerketa Institutua erabat independentea da, sustrai zientifikoak ditu (VUko Unibertsitateak sortu zuen Amsterdamen) eta nazioartean jarduten du. Kieskompas taldea zientzialari sutsu eta konprometituek osatzen dute.

- **Zergatik biltzen dituzue datuak?**

Zientzia politikoaren arloko ikerketa zientifikorako biltzen ditugu datuak. Ikerketa hau ez da bakarrik erabilgarria datuen analisi informatiboak egiteko, baita gobernu-agentziek eta bestelako erakunde garrantzitsuek ere politikak ongi informaturik gauzatzeko. Kasu batzuetan, beste akademiko batzuei ere datu anonimoak ematen dizkiegu beren ikerketa-proiektuetarako. Egiten ditugun analisiak komunikabideekin eta beste erakunde batzuekin partekatzen ditugu, hala nola, gobernu-agentziekin eta gobernu kanpoko erakundeekin. Horrela, iritziz politiko eta sozialen berri kalitatez ematea sustatuko da. Analisi hauekin ez da posible pertsona partikularren arrastoari jarraitzea. Datu anonimo eta agregatuak dira beti.

- **Nola biltzen dituzue datuak?**

Online erremintak erabiliz (VAS) panel-inkesta espezifikoak erabiliz biltzen ditugu datuak. Gure tresnarik ezagunena "Election Compass" izeneko boto-aholku online aplikazio bat da (VAA, *Voting Advice Application*). 40 herrialdetako 60 milioi pertsonak baino gehiagok Kieskompas VAA bat erabili dute. Erreminta hauek boto-emaileei laguntzen diete bozkatzeko aukera informatua eta ondo oinarritua egiten.

- **Nola erabiltzen ditu Kieskompas-el galletak?**

Galletak testu-fitxategi txikiak dira, ia edozein web gune bisitatzean ordenagailuan, mugikorrean edo beste gailu batean jartzen direnak. Galleta analitiko bat jartzen dugu bisitarien estatistikak jasotzeko. Zure bisitaldian Google Analytics erabiliko dugu. Holandar Data Babes-autoritatearen arauen arabera egiten dugu hori. Horregatik, prozesadore akordio batean sartu gara Googlerekin eta zure IP-helbidearen azken *oktoa* mozorrotu dugu. Ez ditugu datuak partekatzen Googlerekin, eta ez ditugu beste Google zerbitzu batzuk erabiltzen Google Analytics gailuekin konbinatzeko.

Galleta analitikoak besterik ez ditugu jartzen, eta ez aztarna-galletarik edo galleta funtzionalik. Web-orri edo aplikazio baten bisitarien portaera neurtu eta aztertzeko edota web-gune batean saioa zabalik mantentzeko erabiltzen dira sarritan azken galleta hauek. Berariaz erabaki dugu galleta mota hauek ez erabiltzea.

- **Zer nolako datuak biltzen dituzue Kieskompas VAAs-ekin?**

Kieskompas VAA batean, adierazpenak erantzuteaz gain, galdera gehiago erantzuteko eskatzen dizuegu. Adibidez, zure generoa, jaiotza-urtea, heziketa gorena, zip kodearen eremua eta lehenetsun politikoak (behean da biltzen ditugun datuen zerrenda osoa). Ona da jakitea galdera horietako bati ere ez erantzutea eta adierazpenei bakarrik erantzutea aukeratu dezakezula. Nahiz eta galdera gehigarriei erantzutea ez den aginduzkoa, hala egingo duzula espero dugu. Datu hauek, jakina, oso garrantzitsuak dira ikerketa zientifikorako. Galdera gehigarriei ez erantzutea

erabakitzen baduzu, Kieskompas VAA baten emaitza ikusi ahal izango duzu. Kieskompas tresna bat betetzean ematen dituzun erantzunak datu ez-pertsonalak dira, mugarik gabe biltegitratzen direnak.

Kieskompas VAA batean, zure posta helbidea uzteko eta online ikerketa zientifikoetan parte hartzeko gonbidapenak jasotzea onartzeko eskatuko dizugu. Zure datu pertsonalak prozesatzen ditugunez, Datuen Babes Erregelamendu Orokorra 2016/679 (GDPR, *General Data Protection Regulation*) aplikatzen da. Kontuan izan **Kieskompas tresna betetzea erabat anonimoa dela beti**: Kieskompas tresnan ez ditugu lotzen posta elektronikoko helbidea galderekin eta adierazpenen erantzunekin. Kieskompas VAAs-en bildutako datuei buruzko informazio gehiago eman dugu beheko taulan:

Kieskompas VAA-n bildutako datu mota	Baimena ez da beharrezkoa	Automatikoa	Baimendu ondoren
Adierazpenen erantzunak	✓		
Osatzeko denbora		✓	
Nabigatzaileari buruzko datuak		✓	
Web-guneko trafikoari buruzko fitxak		✓	
Kokapen-datu agregatuak (Kieskompas erabiltzen den hiria eta probintzia, adibidez)		✓	
Zure gailu elektronikoari buruzko informazioa (mota, nabigatzailea)		✓	
Datu pertsonal orokorrak (jaiotza-urtea, generoa, hezkuntza, zure posta-kodearen zati bat edo unitate geografiko handiago bat)	✓		
Datu pertsonal bereziak (alderdi politiko-lehentasuna, iritzi politikoa eta botoa emateko jokabidea)	✓		
Posta elektronikoaren helbidea			✓

OHARRA: mesedez, kontuan izan gure VAAREN datuek ez dutela IP-helbiderik eta Kieskompas tresnan bildutako datu guztiak guztiz anonimoak direla (posta elektronikoko helbidea utzi baduzu ere). Azterketa batean parte hartzea erabakitzen baduzu, zure adostasuna eskatuko dizugu datu pertsonalak bildu aurretik.

• Kieskompas VAA batean zure e-maila eskaintzea segurua da?

Bai, horixe! Kieskompas-ek erabiltzaileei buruz gordetzen dituen datu pertsonal bakarrak, e-mail helbideak alegia, ezin dira inola ere konektatu ematen dituzun erantzunekin. Datuak prozesatu eta biltegitratu egiten ditu IT-zerbitzu hornitzaileak. Legez loteslea den Data Prozesadore Akordio bat dago Kieskompas BV eta IT-zerbitzu hornitzailearen artean. Bildutako datuak hiru fitxategik osatzen dituzte beti: 1) kode-liburu bat, 2) datu-multzo anonimo bat eta 3) posta elektronikoko helbideak dituen fitxategi seguru bat, beste fitxategietatik bereizita. Proiektu bakoitzaren ondoren, posta elektronikoko helbideak dituen fitxategia zerbitzarietatik atera eta kanpo-disko gogorretan gordetzen da, Internetera konektatuta ez daudenak eta *login*-izen eta pasahitz bakarrarekin ziurtatuak. Zure helbide elektronikoarekin zer gertatzen den buruzko informazio gehiago izateko, ikusi behean.

• Zer nolako datuak biltzen dituzue Kieskompas-inkestekin?

Posta elektronikoko helbideak ikerketa zientifikoetara gonbidatzeko erabiltzen dira soilik (luzera-ikerketa gehigarrietara). Epe laburrean gonbitea jaso dezakezu, baina hau urte batzuen buruan ere gerta liteke. Horregatik gordetzen dugu zure posta helbidea denbora luzez, baina gehienez 15 urtez. Online ikerketa egitera gonbidatzen bazaizue, uko egin diezaiokezue parte hartzeari, jakina, edo harpidetza utzi. Inkestako parte-hartzaileei, gure ikerketan parte hartu aurretik, adostasun esplizitua eskatzen zaie. Inkestak edozein unetan ken dezakete beren onespena, beren onspena kentzeagatik inolako kalterik jasan gabe.

Zure posta helbidea beste datuetatik berezita mantentzen dugu. Beraz, identifikatzaile bakarrak izendatzen dizkiegu berehala posta elektroniko-helbideei. Honek inkesta-datuen sasi-anonimizazioa ahalbidetzen du. Sasi-anonimotasunak luzera-ikerketak egiteko aukera ematen du, eta datu pertsonalik erabili gabe inkestatu berberak egin zituzten inkesta ezberdinen datuak konektatzeko.

Kieskompas-ek luzetarako ikerketa zientifikoa garatzen du Qualtrics-en zerbitzuez baliatuz - online inkestentzako GDPR-arekin bat datorren "hodeian" oinarritutako software bat. Online inkestan bildutako datuak sasi-anonimizatu egiten dira jasotzean beti, hau da, (automatikoki*) bildutako datu pertsonal guztiak ezabatu egiten dira (informazio gehiagorako, ikus beheko taula).

Hirugarrenek datuak aztertzen dituztenean, datu guztiz anonimoekin bakarrik egiten dute lan, inola ere ez dutenek pertsona fisikoen aztarnari jarraitzea ahalbidetzen.

Kieskompas inkestetan bildutako datuei buruzko informazio gehiago eman dugu beheko taulan:

Online inkesta ikerketan bildutako datu mota	Baimendu ondoren	Baimen esplizituaren ondoren
IP helbidea*	✓	
Gutxi gorabeherako kokapen-datuak (longitueda eta latitudea)	✓	
Inkesta hasteko eta osatzeko ordua	✓	
Inkesta burutzearen iraupena (segundoetan)	✓	
Datu pertsonal orokorrak (jaiotza-urtea, generoa, hezkuntza, zure posta-kodearen zati bat edo unitate geografiko handiago bat)		✓
Datu pertsonal bereziak (adibidez, alderdi politiko-lehentasuna, iritzi politikoa eta botoa emateko jokabidea)		✓
Edozein inkesta gehigarriren erantzunak		✓

• Jarri Kieskompas-ekin harremanetan

Datuekin edo pribatutasunarekin loturiko galderi buruz mintzatzeko, posta elektroniko bidez (info@kieskompas.nl) edo telefono bidez (+31 (0) 20 -737 3008) jar zaitezke Kieskompas-ekin harremanetan. Yordan Kutiyski-rekin ere jar zaitezke harremanetan, Kieskompas Data Babeserako Arduradunarekin (DPO, *Data Protection Officer*), posta elektroniko bidez (yordan@kieskompas.nl), edo lehen aipatutako telefono zenbakiaren bidez. Kieskompas-en harremanetarako informazioa hainbat modutan aurki dezakete erabiltzaileek. Horrek erraztu egiten du erabiltzaileek beren burua informatzea edo datu-eskubideak baliatzea. Kieskompas-en harremanetarako informazio osagarria behean aurki daiteke:

- Kieskompas BV
Rombout Hogerbeetsstraat 78
1052 XH Amsterdam
Nederland

Kieskompas-ek erabiltzaile batekin duen kontaktu orok dokumentu hau izango du, harremanetarako xehetasunak barne, esteka zuzen baten bidez edo web-gunerako esteka baten bidez. Kieskompas VAA bakoitzaren hasieran galleta-ohar bat agertzen da, eta datu pertsonalak (sentikorrek) eskatzen bazaizkizu, orri bat agertuko zaizu baimena (esplizitua) emateko.

• Zure datu-eskubideak

Kieskompas-ek zure datuen babeserako eskubideak ezagutzen dituzula ziurtatu nahi du. Kieskompas-erabiltzaile orok honako eskubide hauek ditu:

Datuetan sartzeko eskubidea: Kieskompas-i zure datu pertsonalen kopiak eskatzeko eskubidea duzu.

Ahaztua izateko eskubidea: zure datu pertsonalak ezabatu ditzatela eskatzeko eskubidea duzu. "Ahaztua izateko eskubidea" bermatzeko, beren datuak ezabatu ditzagun nahi duten erabiltzaileei eskatzen diegu guk ezagutzen dugun posta elektronikotik idazteko. Ezagutzen dugun posta elektronikorik gabe, ezin ditugu zure datuak lotu edo zurekin partekatu. Eskabide oso bat aurkezten denean, Kieskompas Data Babeserako Arduradunak (DPO) bilatuko du eta erabiltzailearen datuak lotuko ditu hauek ezabatzeko.

Datuen zuzenketa-eskubidea: Kieskompas-ek okertzat jotzen duzun edozein informazio zuzendu dezala eskatzeko eskubidea duzu. Kieskompas-ek osatu gabe dagoela iruditzen zaizun informazioa bete dezala eskatzeko eskubidea ere baduzu.

Datuen eramangarritasun-eskubidea: Kieskompas-i emandako datu pertsonalak zuzenean beste kontrolatzaile bati helarazteko eskubidea duzu, teknikoki posible izanez gero.

Datu-prozesaketa mugatzeko eskubidea: "Ahaztua izateko eskubidea"-ren alternatiba gisa, Kieskompas-ek zure datu pertsonalen prozesaketa murriztu dezala eskatzeko eskubidea duzu egoera jakin batzuetan. Kieskompas-ek gordetzen duen informazioaren edukiarekin edo Kieskompas-ek zure datuak prozesatu dituen moduarekin arazoak dituzulako izan daiteke hau.

Prozesaketari aurka egiteko eskubidea: Kieskompas-en zure datu pertsonalen prozesaketari aurka egiteko eskubidea duzu, egoera jakin batzuetan.

Kexa bat aurkezteko eskubidea: Kieskompas-erabiltzaileek agintari ikuskatzaile bati kexa bat aurkezteko eskubidea dute, Kieskompas-ek bere datuak prozesatzeko dituen bitartekoei dagokienez. Holandako datu-zaintzako agintaritzak Autoriteit Persoonsgegevens da (Data Babes-Agintaritzak Nederlandarra).

Beren eskubideak segurtasunez aplikatzen direla bermatzeko, erabiltzaileei eskatzen diegu guk ezagutzen dugun posta elektronikotik idazteko. Ezagutzen dugun posta elektronikorik gabe, ezin ditugu zure datuak identifikatu. Eskabide oso bat aurkezten denean, Kieskompas Data Babeserako Arduradunak (DPO), zure eskubideak betetzen direla ziurtatuko du.

